

2019ko EKAINAREN 15ean UDALA ERATZEKO EGINDAKO BILKURAREN AKTA

Zarauzko Udaletxeko batzar-aretoan, 2019ko ekainaren 15eko goizeko 9:00etan honako zinegotzi hautetsi hauek bildu dira, lehenengo deialdian, joan zen maiatzaren 26an egindako Udal Hauteskundeetan hautatuak izan ondoren.

Bertaratutako zinegotzi hautetsiak:

EUZKO ALDERDI JELTZALEA - PARTIDO NACIONALISTA VASCO (EAJ-PNV)
alderditik:

Xabier Txurruka Fernandez jn.
Miren Letamendia Belloso and.
Jesus Arana Gomez jn.
Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and.
Iban San Martin Hernandez jn.
Leire Arana Olabarrieta and.
Ixidor Larrañaga Ayerbe jn.
Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn.
Iker Basurko De Miguel jn.
Irene Urbietta Alberdi and.

EUSKAL HERRIA BILDU (EH Bildu) koaliziotik:

Itziar Murua Uria and.
Ion Arozena Eizagirre jn.
Mikel Goenaga Gubia jn.
Ainara Landa Argote and.
Begoña Olaizola Elordi and.
Xabier Etxaburu Elu jn.
Jesus Goikoetxea Balentziaga jn.
Eider Illarramendi Azkue and.

PARTIDO SOCIALISTA DE EUSKADI-EUSKADIKO EZKERRA (PSOE) (PSE-EE (PSOE))
alderditik:

Gloria Vazquez Herranz and.
Patxi Elola Azpeitia jn.

PODEMOS-EQUO BERDEAK koaliziotik:

Ana De Benito Sanz and.

Ines Diaz de Villafranca Arzamendi idazkaria, Udaleko idazkaria dena, bilkurara bertaratu da, eta ekitaldiaren fede eman du.

Idazkariak irakurri du jarraitu beharreko prozedurari buruz berak egindako txosten juridikoa, eta, halaber, adierazi du Udalbatza eratzea dela bilkura honen xedea; hori guztia, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzkoak (martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak aldatua), 195.1 artikuluan, eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki-erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, 37.1 artikuluan, agindutakoa betetzeko, eguneko gai-zerrenda honen arabera:

GAI ZERRENDA

1. Udalbatza eratzea

2. Alkatea hautatzea eta, hala bada, kargua hartzea.

Idazkariak bilkurari hasiera eman eta gero, Adin-mahaia osatu da ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak, Hauteskunde-araubide Orokorrari buruzkoak (martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak aldatua), 195.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Honakoek osatu dute mahaia: PATXI ELOLA AZPEITIA jaunak –adinez hautetsi nagusiena den aldetik mahaiburu gisa aritu dena– eta LEIRE ARANA OLABARRIETA andreak –hautetsi gazteena dena–. Mahaiko idazkaria, berriz, INES DIAZ DE VILLAFRANCA ARZAMENDI Udalbatzako idazkaria izan da.

Mahaiko idazkariak adierazi duenez, alde zuzenetik jada egiaztatu dituzte zinegotzi hautetsien nortasunari buruzko kredentzialak eta Eskualdeko Hauteskunde-batzordeak udaletxe honetara bere garaian bidali zituen ziurtagiriak; eta bat datozela baieztatu dute.

Era berean, idazkariak Udalbatzarrari adierazi dio, eta hau jakinean geratu da, zinegotzi hautetsi guztiek egin dutela ondarezko ondasunen aitorpena, bai eta bateraezintasun kausei buruz eta egiten dituzten jardueri buruz dagokien aitorpena ere.

Segidan, idazkariak berak adierazi du UDAL ONDASUNEN INBENTARIOARI eguneratuta dagoela, eta zinegotzi guztiek beren esku dutela. Hori guztia egin da apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, Toki-araubide arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartzen duenak, 86. artikuluan, eta ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak, Toki-erakundeen Ondasunei buruzko Erregelamendua onartzen duenak, 32.2 artikuluan, xedatzen dutena betetzeko.

1. UDALBATZA ERATZEA

Kontuan hartuta bilkura honetan zinegotzi hautetsi guztiak bildu direla eta, beraz, legezko gehiengo osoa dagoela, hautetsiek –hauteskunde-legedian legez ezarritako formularen arabera– aurrez hitz eman ondoren, adineko mahaiburuak kargua eman die.

Horrenbestez, Udalbatza formalki eratu dela adierazi du.

2. ALKATEA HAUTATZEA

Idazkariak bilkuran bildutakoei jakitera eman die Udalbatza eratzeko bilkura honetan bertan alkatea hautatu behar dutela, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak, Hauteskunde-araubide Orokorrenak (martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak aldatua), 196. artikuluan xedatutakoaren arabera. Agindu horretan ezarritako prozedura honako hau da:

- Zerrendaburu diren zinegotzi guztiak izan daitezke hautagai.
- Bertan dauden zinegotzi hautetsi guztiak hautesle dira.
- Ezkutuko boto-txartel baten bidez hautatuko da, bozketa bakarra eginez.
- Botoen legezko gehiengo osoa lortzen duen hautagaia izango da hautatua; beraz, gutxienez 11 boto behar dira.
- Bozketa horretan inork ez badu gehiengo osoa lortzen, udalerrian boto gehien lortu dituen zerrendako buru den zinegotzi hautetsia izango da, automatikoki, alkate. Berdinketa gertatuz gero, zozketa bidez erabakiko da.

Txosten horren ondoren eta gai honi buruz dauden aurrekarietan oinarrituta, zinegotzi hautetsi hauek izendatu dituzte alkategai:

- XABIER TXURRUKA FERNANDEZ jn.
EAJ-PNV alderdiaren zerrendaburua
- ITZIAR MURUA URIA and.
EH BILDU koalizioaren zerrendaburua
- ANA DE BENITO SANZ and.
PODEMOS-EQUO BERDEAK koalizioaren zerrendaburua.

Idazkariak boto-txartel bana eman die hautesleei, zuriz; eta adierazi die bertan alkate izateko bozkatuko duten zinegotziaren izen-abizenak idatzi behar dituztela.

Behin txartel guztiak jaso eta gero, botoen kontaketa egin da eta mahaiburuak ozen irakurri ditu alkate izateko boto-txartel bakoitzean proposatu den zinegotziaren izen-abizenak, eta bukaeran botoen kontaketa egin du. Hona hemen emaitza:

Xabier Txurruka Fernandez jaunak	12 boto
Itziar Murua Uriá andreak	8 boto
Ana De Benito Sanz andreak	1 boto

Bozketaren emaitza ikusita, EAJ-PNV alderdiaren ordezkaria, **XABIER TXURRUKA FERNANDEZ JN.** hautagai jauna, izango da alkate, berak lortu duelako gehiengo osoa.

Ondoren, **XABIER TXURRUKA FERNANDEZ** zinegotzi hautatuak Udaleko alkate kargua onartzen duela adierazi du eta, hauteskunde-legeriak ezarritako formularen arabera hitz eman ondoren, kargua eman dion Udalbatzarraren aurrean alkate kargu hori hartu du, indarrean dauden xedapenek ematen dizkieten eskumen, eskubide eta betebeharrak guztiekin.

Adinekoen mahaiburuaren eskutik aginte-makila hartu ostean, Udalbatza eratu berriari eta ekitaldian bildutakoei hitz batzuk zuzendu dizkie.

Aurrekoa amaitu ostean, talde politikoetako ordezkariak hitz egiteko txandari ekin diote, herrian boto gutxien lortu dituen alderditik hasita.

Lehendabizi, PODEMOS-EQUO BERDEAK koalizioko ordezkari **De Benito** andreak hartu du hitza, eta honela mintzatu da:

Hurrena, Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSOE) (PSE-EE (PSOE)) alderdiaren izenean, **Vazquez** andreak hitz egin du.

Murua andrea da ondoren mintzatu dena, EH BILDU koalizioaren izenean.

Azkenik, EAJ-PNV alderdiaren izenean, **Arana** jaunak hitz egin du.

Esku-hartze besterik ezean, Udalbatza eratzeko ekitaldiari amaiera eman diote goizeko hamarrak hoge gutxitan, goiburuan aipatutako lekuan eta egunean; eta nik, idazkaria naizen aldetik, horren guztiaren fede ematen dut.